



DEBAKO UDALA

BANDOA

Osakidetzak gaur, urtarrilak 18, publikatutako datuen arabera, Debako udalerrian azken 14 egunetan COVID-19aren kasu positiboen 586,83 intzidentzia-tasa metatua da 100.000 biztanleko. Hori horrela, eremu gorrian sartu da. Eta ondorioz, hainbat murrizketa aplikatuko dira bihartik aurrera.

Osasun agintariek COVID-19aren hedapena murrizteko ematen dituzten jarraibideak aintzat hartzeko eskatu nahi die herritarrei Debako Udalak. Elkar zaintzeko garaia da, bereziki egoera zaugarrian dauden ingurukoak babestu behar ditugu.

Udalaz gorako administrazioek ezarritako irizpideen arabera, hauek dira eremu gorrian sartuta dauden udalerrietan aplikatzen ziren neurriak:

Pertsonen mugikortasuna:

Ezin da udalerritik irten, arrazoi justifikaturik izan ezean. Ondoko herrira ere ezin da joan, mugatuta baitago pertsonen sarrera eta irteera udalerraren mugetatik.

Ostalaritza:

Taberna eta jatetxeak itxita egongo dira. Etxera eramateko eskaerak 21:00ak arte egin daitezke eta, beranduenez, 22:00etan jaso. Ezin da joan beste herriko taberna batera.

Erosketak:

Debekatuta dago erosketak egiteko udalerritik ateratzea salbu eta funtsezko erosketa eta zerbitzuetarako; baldin eta herrian horiek ez badaude.

Kirola:

Maila profesional edo erdi-profesionalak taldeen entrenamenduak eta lehiaketak mantendu daitezke eta, horiez gain, edonork egin dezake kirola. Betiere aire zabalean, gehienez 6 pertsonako taldeetan eta udalerriko mugen barruan.

Neurrien indarraldia:

Intzidentzia tasa 500etik jaisten ez den bitartean. Eusko Jaurlaritzak astelehen eta ostegunetan argitaratzen du eremu gorrian sartuta dauden udalerrien zerrenda.

Deban, 2021eko urtarrilaren 18an



Gilen Garcia Boyra
Debako Alkatea